

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko apirilaren 28a. VIII. urtea. 2.216. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Letizia Aristik eta Joseba Roldanek aurkeztu dute lehiaketa Tolosako kultur etxean . E.MAIZ

Orexan eta Asteasun Santa Krutz jaiak ospatuko dituzte

Oilarraren jaitsierarekin emango diote hasiera jaiari Orexan, bihar; Elizmendi auzoan etzi izango dute Simonen bisita 07

Natur Bideen Eguna ospatuko dute Leitzan, larunbatean

Antzinako trenbideak eta natur bideak berreskuratzeko antolatzen du jaieguna Plazaola Partzuergo Turistikoak 05

Colorin eta bere lagunek Topic-en jarraitzen dute

1955. urtean jaio zen txotxongiloa Tolosan egongo da ekainaren 19a bitarte; herritar askok haurtzarora itzultzeko aukera izango dute 04

Antzerki lehiaketak tamaina txikian dirau

5. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa bihar hasiko da Asvinenearen egoitzan, Adunan; lau kanporaketa jokatu dira, eta guztira 27 antzezlan aurkeztuko dituzte, horietatik bederatzia euskaraz 06



1. Saria

Photokafe-k eskainitako Sony DSC-HX1 argazki kamera.




photokafe



2. Saria

Markina-Xemeingo **Satzu** landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia.



3. Saria

Amaroz jatetxean bi pertsonentzako otordua.



Harpidedun bakoitzak argazki bakarra bidali dezake argazkiak@hitza.info helbidera

Argazkiak bidaltzeko azken eguna: maiatzak 13



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza

Irudia ◊ Tolosa



USTEZKO HAUR LAPURRETEN 30 KASU AGERTU DIRA TOLOSALDEAN

Anadir elkarteak Tolosan bilera egin zuen atzo, eta jende ugari gerturatu zen bertara. Haur lapurreten kasuak agertzen hasi zirenean, kaltetuek Anadir elkartearen sortu zuten. Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban 400 salaketa bildu dituzte jadanik, eta horietatik

30 eskualdekoak dira. Atzoko bileran, Tolosako Udalak onartu berri duen mozioa aztertu zuten, besteak beste. Tolosako udal ordezkariak ere bertan izan ziren, euren elkartzuna eta laguntza eskaintzeko asmoz. URRIZU

Irudia ◊ Tolosa



HIRUKIDEKOAK POLONIAN

Hamaikagarren urtez, Hirukidek Poloniako bi ikastetxerekin duen elkartrukea gauzatu du. Batxilergoko lehen mailako 61 ikaslek eta lau arduradunek 12 egun igaro dituzte Poznan hirian, bertako ikasle-entxeetan. Berna, Praga, Krakobia, Berlin eta Paris ere bisitatu dituzte. Argazkietan, batean ikasle tolosarrak Suitzako Parlamentuaren aurrean, eta bestean Birkenau kontzentrazio esparruan. HITZA

Et incarnatus eta Ikastolako Haur Abesbatza Baigorri ariko dira

Basaiea elkarteak antolatu du musika eskaintza oparoa apirilaren 30ean, etzi, 21:00etatik aurrera

Asier Imaz Tolosa

Aurten, Basaiea Baigorriko elkarte kulturalak Aste Kultural berezia antolatuko du, apirilaren 24tik 30era. Egitarauko izarra Na-

farroaren Eguna izan den arren, iragan igandean, Tolosaldeko musikari ugari gerturatuko da bertara apirilaren 30ean, Aste Kulturalari agurra ematera.

Baigorriko elizan, 21:00etan, *Hitzen musikaz* hazi ekimena izango da etzi. Bertan, hainbat talde eta taldekide elkartuko dira. Horien artean egongo dira Tolosako Et Incarnatus Ganbara Orkestra eta Laskorain Ikastolako Haur Abesbatza. Hauekin batera, Ken Zazpi taldeko Eñaut Elorrieta eta Ama-

ren alaben ahotsak entzuteko aukera izango da, Xabier Lete eta Mikel Laboaren doinuak, kantu herrikoiak... abestuz.

Euskararen alde

Basaiea elkarteak 1981ean sortu zen, eta, hiru helburu argirekin sortu ere. Geroztik, kultura uzartzen dihardu. Horretarako lehen aipatu hiru ardatz ditu: «Euskararen salbatzea, euskaldun izatearen zaintzea eta herri dinamika bultzatzea».

Aurtengo ekitaldietarako diru laguntzak eskatzeko aukera dago

Zizurkilgo udaletxean aurkeztu behar da eskaria maiatzaren 13a baino lehen, 09:00etatik 14:00etara

Erredakzioa Zizurkil

Udalak diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. 2011. urtean zehar burutu asmo diren urteko ekintzetarako eskaerak aurkezteko epea irekirik egongo da maiatzaren 13a arte. «Aisialdia, kirola, kultura, hezkuntza, gaztetxo eta euskara inguruko ekintzak interesgarriak» finantzatzeko laguntzak direla azaldu dute Zizurkilgo Udaletik. Eskaera udaletxean aurkeztu behar da, 09:00etatik 14:00etara, astelehenean ostiralekara.

Metapostan alta emateko aukera dago Anoetako KZgunean

NAN edo AIZ aurkeztea nahikoa da alta emateko; horretarako, ostirala izango da azken eguna

Erredakzioa Anoeta

Otsailean jarri zuten abian Metaposta doako zerbitzua interes pertsonaleko dokumentuak biltegi-ratu ahal izateko. Legezko frogabalia duen Interneteko kutxa da, eta posta elektronikoa izatera du.

Sistema horretan alta emateko, Anoetako KZgunera joan daiteke, ostirala bitarte, 16:00etatik 20:00etara. Bertan, langile prestatuak izango dira edonori laguntzeko prest. Gainera, Trebakuntza ikastaroak ere eskainiko dituzte, Metapostako kontuari

ahalik eta etekin handiena ateratzeko helburuarekin.

Alta emateko nahikoa da NAN edo AIZ aurkeztea.

Metaposta ezagutuz

Etxeko artxibategiaren ordezkari gisa sortu dute Metaposta; etxeko paperak, dokumentuak eta fakturak antolatzeko irtenbide gisa.

Metapostaren asmoa, «Interneteko postaren kutxa-gotor elektronikoa» garatzea da, bertan interes pertsonaleko dokumentuak, herritarrek eta enpresek balio handia ematen dieten dokumentuak gorde ahal izateko. Gainera, mundu elektronikoan, bere gain hartzen du postontzi tradizional baten zeregina. Sistema horren bidez, postontzi fisikoan jasotzen dituzten dokumentu ugari jaso ditzakete herritarrek: Fakturak, polizak, zitazioak...



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Hodi baten bidez sartzen da ura zentralera, eta ondoren Zazpi Iturri erreka isurtzen da. HITZA

Tolosaren eta Amezketaeren arteko ezadostasuna gaindituta, Zazpi Iturriko zentral berrian egindako inbertsioa ordaindu da, eta orain etekinak ematen dizkie bi udalerriei.

Urak dakarren energia

Imanol Garcia Amezketa

Zazpi Iturriko ur emaria aspaldidanik erabiltzen da. Egun zentrala dagoen lekuaren inguruan, garai batean bi errota zuden. Tolosako Udalak errota horiek eta ondoko lurrak erosi zituen 1920 inguruan. Bertan zentrala eraiki zuten, uraren indarra baliatuz energia sortzeko. Zentralak funtzionatzen jarraitu zuen 1970 arte. Energia sortzea baino merkeagoa zela Iberduero enpresari erostea ikusi zuen Tolosako Udalak.

Zentral zaharrean bi amezketar aritzen ziren lanean, eta hau

itxi zenean, Tolosara joan ziren mantenu lanak egitera. Franco ondorengo lehenengo udalean, egun alkate den Jesus Iñurritak zuten orduan ere Amezketa alkate. «Zentrala zazpi bat urte utzita egon zen, eta ikusi genuen geldirik egotea ez zela komeni, hobe zela aprobetxatzea», dio alkateak.

Iñurritak berak egin zituen neurketak; Zazpi Iturritik zentralera zihoan hodieta zenbateko ur emaria zegoen, eta horrekin zenbateko potentzia ateratzea zegoen. Kalkulu horien arabera zortzi urteetan bere burua ordaintzeko etekina izango zuela zentralak ondorioztatu zuen.

Hortik aurrea, bide luze bat hasi zen. «Ur Konfederazioari eskatu genion kontzesioa Amezketa ematea, legeak zioen bezala, hiru urte baino gehiago geldirik bazegoen justifikaziorik gabe, kontzesio eskubideak galdu egingen zirelako», dio alkateak. Lehenengo eskaria 1981ean egin zuten, baina, epaiketarik gabe, Iparraldeko Ur Konfederazioak Tolosari kontzesioa ematen jarraitzen zuen.

Ur Konfederazioko lehendakariak saiakera egin zuen Tolosa eta Amezketa adostasun batera iristeko. 1990 inguruan Jesus Iñurritak eta orduan Tolosako alkate zen Joxe Gurrutxaga bazkaltzera

gonbidatu zituen Altzora. Ez zuten, baina, akordiorik lortu.

Beste eragile baten parte-hartzea behar izan zen ezadostasuna konpontzeko. Energiaren Euskal Erakundeko (EEE) Angel Garrotek, zentrala aprobetxatu zitekeela ikusirik, proiektu bat bultzatu zuen, bi herriak kontuan hartzen zituena. «Kontzesioa eta Tolosako Udalak zituen lurrak balortzea izan zen lehenengo pausoa», dio Iñurritak. «25 milioi pezetatan baloratu zituen, eta Amezketa hori ordaindu zuen».

Inbertsioa ordainduta

EEEtik egin zuten proiektua, eta horren arabera zortzi edo bederatzit urteetan inbertsioa ordaintzeko adina etekin izango ziren. Azkenean, zazpi urte igaro dira martxan jarri zenetik zentral berria, eta dagoeneko inbertsioa ordaindu da. Aurten bi udalerriei 25.000 euro inguruko etekina emango die. Behin inbertsioa ordaindu dela, zentralaren jabetasuna ho-

rrera banatzen da: EEEK %10 du, mantenu gastuei aurre egiteko, eta Amezketa Udalak eta Tolosako Udalak, bakoitzak, %45 dute.

Urtean 2 milioi kilowatt ordu produzitzen ditu zentralak, eta horren arabera, bai Amezketa eta baita Tolosak ere, urtero 50.000 eurotik gorako diru sarrera izango dutela aurreikusten da.

EEEk egin zuen egungo zentralaren proiektua, bi udalerriak aintzat hartuz

Jesus Iñurritak: «Diru iturri bat gehiago nahi genuen eta hori lortu dugu»

Sortzen den indarra Iberdrolari saltzen zaio.

Iñurritak azaltzen duenez, «oso gustura gaude emaitzekin. Diru iturri bat gehiago izan nahi genuen eta hori lortu dugu. Bidea oso zaila izan da. 30 urte asko dira, eginahal handiak egin behar izan dira eta une txarrak pasatu ditugu. Ikusten genuen legearen arabera kontzesioa lortzea gurea, baina herri txikiagoa ginenez, inpotentziarekin ikusten genuen nola Ur Konfederazioak Tolosari jarraitzen zion kontzesioa ematen». Alkateak gaineratu duenez, zentralatik lortuko den diru iturria garrantzitsua da Amezketa-entzatzat, «urtean 50.000 euro asko baita».

Orain, automatikoa

Zentral zaharrean eskuz egin behar zen lana. Horregatik, hiru erreleboetara lan egiten zen. Batez ere ur emaria kontrolatzen zuten langileek. Oraindik bertan daude erabiltzen zituzten tresnak. Eguneko funtzionamendua automatikoa da: «Gelditu behar badu bera gelditzen da eta gero martxan jarri ere bera bakarrik jartzen da», azaldu du alkateak.

Ur emaria Zazpi Iturritik iristen da zentralera lur azpian dagoen hodi batetik. Urak turbina bat mugitzen du eta gero alternadore batera joaten da turbinak sortzen duen indarra. Alternadoreak argindarra bideratzen du kabletara. Ura, turbinatik igaro ondoren, Zazpi Iturri erreka isurtzen da.



Zentral zaharreko tresnak mantendu dituzte. Sortutako argindarra kableekin bideratzen da. I.GARCIA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria Villabonan.** Sukaldaria behar da eguneko menuak, kazuelak eta taberna bateko sukalde arduradun izateko. Euskara jakitea ezinbestekoa da, baita ere antzeko lanetan eskarmentua izatea. Bidali curriculum, villabona2011@gmail.com helbidera.

Informazio gehiagorako, deitu 661 36 94 24 telefonora.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza Iruran.** Etxebizitza alokatzeko moduan Iruran. Bil logela, 80 metro karratu eta garaje itxia aukeran. Interesatuek deitu 636 53 00 00 telefono zenbakira.

Duela 56 urte inguru, haur gipuzkoarrek hamaika eta bat arratsalde alaituko zizkien pertsonaia ezagutu zuten: Colorin txotxongiloa.

Haurren lagunik hoberena

Itzea Urkizu

1955. urtean sortu zuten Jose Luis Viillarejok eta bere emaztea Concepcion Momeñek, Colorin pertsonaia. Txotxongiloa ezagutu zutenek diote, orduz geroztik ohikoa zela udan, Donostiako Alderdi Ederren, haren emanaldiak ikustea.

Tolosako Topic-en, Colorin eta bere lagun erakusketa dago ikusgai, datorren ekainaren 19ra bitarte; herritar askok haien haurtzarora itzultzeko aukera izango dute.

Villarejo Circulo Cultural y Ateneo Guipuzcoano antzerki taldeko partaidea zen, eta haien seme-alabak antzerkiaren eta eszenatokiko interpretazioaren mundura hurbiltzeko asmoz sortu zuten, gerora Euskal Herrian

hain ezaguna egin zen Colorin panpina. Txotxongiloak eta hauen tradizioa Villarejo eta Momeñeren lanari esker heldu ziren Gipuzkoara, eta bertako ia herri guztietan zehar ibili ziren Colorin eta bere lagunak; Bizkaia, Araba eta Nafarroako herri asko ere bisitatu zituzten.

Erakusketan, Colorin beraren bertsio desberdinak daude ikusgai, eta haren emanaldiak eskaintzen zituzten eszenatokiak ere bai. Era berean, Colorinekin haserretu edo jolasten ziren Remolacha eta Berenjena ahizpa sorginak, Papirotas erregea, Pachu-chita printzesa, Patatita amona, Machacacocos ogroak, Ojos de besugo ogroak, Plumerolocos eta Biruji indiarrek, Chuletita txinatartxoa, Filetin txinatartxoa, Pimenton ipotxa eta Estropajoso magoa ere, Topic-en daude.



Colorin 1955ean sortu zuen Donostiako senar-emazte batek. A. IMAZ



Plumerolocos txotxongilo indiarra deigarrienetarikoa da. A. IMAZ



Hainbat pertsonaia izaten ziren Colorin-en alboan. A. IMAZ

Erosi
HERRI URRATSeko jantziak
Euskalherriko**plaza.com**-en:

www.euskalherriko
plaza.com



Iaz 100 pertsona inguru bildu ziren patzuergoak antolatutako jaiegunean. HITZA

Eriz Magoaren magia izango da ikusgai Benito Izagirre Kultur Etxean

Gaur 17:00etan izango da saioa haur eta gaztetxoei zuzendutako Pazko asteko egitarauaren barruan

R.C. Ibarra

Ibarrako Kultura eta Gazteria Batzordeak Pazko asterako antolatutako azken ekitaldiak izango dira gaur eta bihar.

Gaur 17:00etatik aurrera kultur etxean Eriz Magoaren *Birziklapenaren magia* ikusizuna ikusi ahal izango da. «Birziklapen eta magiaren laguntzarekin zenbait hanka-sartze konpontzen saiatuko da. Gatz eta piper ukituarekin umore fina eta guzti era-

biliz», argitu dute batzordeko arduradunek.

Bihar ordu eta leku berean, Irrintzi taldearen *Mus-Hika* ikusi ahal izango da. Haurrei musika mundua gerturatzeko emanaldia izango da. «Bizitzaren lehen urteetan, musikaren erakargarritasuna aurkitzeko eta modu atsegina eta jolasgarria gozatzeko xedeaz pentsatuta dago ikuskizun hau. Musikaren hainbat alor ukitzen dira, hala nola, mariatxiak, rock-pop musika (The Beatles), tenoreen ahotsa zein pianoa (Jaurme Aragal), bertsolaritza (M. Lujanbio eta U. Iturriaga), eta titiriteroak zein panpinak nahasten dira. Bukaera espontaneo eta parte-hartzailea ere izango du emanaldia», argitu dute arduradunek.

→ Laburrak

Arabako Txakolina upategira joateko irteera

ASTEASU › Asteasuko Udalak Arabako Txakolina upategira joateko irteera antolatu du maiatzaren 7rako. Izena maiatzak 3a baino lehen eman behar da 661 082 656 (Ainhua) telefono zenbakira deituz, eta 30 euro ordaindu behar da. 08:00etan irteeraren dira plazatik, eta upategira joan aurretik Artziniaga bisitatuko dute. Arratsaldean aldiz, Amurriora joango dira.

Festak antolatzen bilerak astearteetan izango dira

TXARAMA › Aurtengoan Txaramako jaiak maiatzaren 27 eta 28an izango dira. Guztia antolatzen bilerak astearteetan izango dira argitu du. Bilerak Txaramako elkartearen izango dira 19:30etik aurrera. Datorren bilera beraz, maiatzaren 3an izango da.

Antzinako trenen bideak berreskuratzeko eguna izango da Leitzan, etzi

Natur Bideen Eguneko ekitaldiak ireki berri den Uitziko tunelaren inguruan antolatu dituzte

Rebeka Calvo Leitzan

Plazaola Patzuergo Turistikoa, Leitzako, Larraungo eta Lekunberriko udalteekekin batera, 2002. urtetik antolatzen du Natur Bideen Eguna.

Helburua antzinako trenen bideak berreskuratzeko eta natur bideen promozioa sustatzea da, eta urtero Lekunberri edo Leitzan

izaten dira ekitaldiak. Aurtengoa Leitzan izango da jaieguna, etzi, larunbata.

Ibilbideak 09:00etatik aurrera Ekitaldiak 09:00etan hasiko dira. Ibilaldiak izango dira Leitzako zein Lekunberriko geltokietatik, eta tren txutxua ere izango da 11:15etik aurrera. Era berean, Leitzako plazan 12:30etik aurrera pintxoak, edariak, musika... egongo da.

Aipatu moduan ibilbide ugari egingo dituzte, baina parte hartzeko izena alde aurretik eman behar da. Leitzako geltokian 08:45etik aurrera egin ahal da, Lekunberriko geltokian 09:30etik

aurrera eta Kitaranbueltan 10:30etik aurrera, azken hau haurrentzako ibilbidea izango delarik.

Aipatu hiru lekuetan izena emateaz gain, ibilbideen inguruko informazioa emango dute eta parte-hartzaile bakoitzari txartel bat banatuko diote. Txartel horrekin eguerdian Leitzako plazan egingo duten zozketan parte hartzeko aukera izango da. Kobetara sartzeko eta abentura parkerako sarrerak, kamisetak eta abar zozketatuko dituzte.

Horretaz gain, banatuko dituzten pintxo eta edariak hartzeko ere beharrezkoa izango da txartelak eramatea.

↓ Natur Bideen Eguna

EGITARAUA

■ **09:00etatik aurrera.** Leitzako geltokitik familia zein helduen artea. Aurretik Leitzako geltokian izena eman behar da (08:45etik aurrera egin ahal da). Plazaolako bidetik ibilbidea honakoa izango da: Leitzako geltokia-Uitziko tunela (hegoaldeko)-Leitzako plaza (20 km).

■ **10:00etatik aurrera.** Lekunberriko geltokitik familia zein helduen artea. Aurretik Lekunberriko geltokian izena eman behar da (09:30etik aurrera

egin ahal da). Plazaolako bidetik ibilbidea honakoa izango da: Lekunberriko geltokia-Uitziko tunela (hegoaldeko)-Leitzako plaza (15 km).

■ **11:00.** Haurren irteera pailazoein. Globoflexia eta beste zenbait joko egiten dituzten pailazoei gidatutako haurrentzako ibilbidea BT Tn. Ibilbidea: Kitaranbuela-Leitzako plaza (4 km). Jaitsiera Iturrizarreatik egingo dute, txikientzako ibilbide luzeegia ez izateko. Kitaranbuelara iristeko NA-1700 zuzunetik, Erasoteko auzoko desbideratzea hartuz.

■ **11:15ean.** Tren txutxua. Uitziko tuneleko hegoaldeko partetik tren txutxu bat aterako da. Honen tunela zeharkatzeaz gain, natur bidea ere gurutzatuko du Leitzako plazara iritsi arte. 60 pertsona sartzen dira trenean eta bertara igotzeko ezinbestekoa izanen da aurretik Leitzako eta Lekunberriko ibilbideetan izena ematea. Tren txutxuan sartzen ez direnak beranduago Leitzatik buelta bat emateko aukera izango dute.

■ **12:30.** Pintxoak, musika, zozketak... izango dira Leitzako plaza.

Erosi

HERRI URRATSeko jantziak

Euskalherrioplaza.com-en:








www.euskalherrioplaza.com



Poltsikotik ateratako antzerki lanak ikusteko aukera Asvinenean

5. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa bihar 22:30ean hasiko da; sei talde igoko dira taula gainera, eta bi pasako dira finalurrekora

Lehiaketako lau kanporaketetatik 27 antzezlan pasako dira; 9 euskarazkoak

Eneritz Maiz Aduna

Bihar hasiko da 5. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa Adunako Zubi-txiki poligonoan duten Arte eszenikoaren laborategian. Asvinenea Elkarteak, Asvinenea Aretoaeren bidez antolatzen du lehiaketa hau. Eta urtetik urtera izen handiagoa du lehiaketa honek.

Zazpi gala ezberdin izango ditu lehiaketak. Bihartik hasi eta ostiraleroko izango dira saioak ekainaren 10ean jokatuko den finala bitartean. 22:30etan hasiko dira saio guztiak. Guztira, 27 antzezlan ikusteko aukera izango da, eta sarre-erak egunean bertan eskuratuko dira.

Letizia Aristi Asvineneako kideak eta Joseba Roldan, parte hartzaile eta irabazle izanak aurkeztu zuten lehiaketa.

Lehiaketan aurkezten diren antzezlanek, 8 minututik 15 minutu bitarteko iraupena izan beharko dute. Bihar, hilak 29, 22:30ean hasiko da lehen kanporaketa. Permin Mañifikue, Edurne Agirrezabala, Viento en Pompa, Berastegiko Antzerki Taldea, Banarte eta Aldraka Antzerki Taldeak izango dira taula gainera igoko direnak. Hauetatik, bi pasako dira finalurrekora.

Maiatzaren 6an jokatuko den kanporaketan, Weisford eta Xakelton, Aldatzen laguntzen, Retama, Hernanikoa, Hortzaka, Café en el Pepe eta Ipfosfacto taldeak ariko dira. Hirugarren kanporaketa, maiatzaren 13an jokatu da, eta hauek izango dira taula gainean: Pequeño Payaso dictador, Annarita, Rosse Mary's baby, Tic-Tac, Alegría Hermanos, Séctate eta Inozentzio taldeak. Eta azken kanporaketa, maiatzaren 20an izango da. Kukubazar, Siempre arriba, Pollo rosa, Karmakros, Amets, Zirkoloretsua eta Portugaleteko Antzerki Eskola ariko dira taula gainean.

Jarraian, bi finalurrekoak eta finala jokatu da. Saio bakoitzean, gonbidatu berezi bat ere izango da.

Epaimahaia, Asvinenea Elkarteaz kanpoko kideez osatua izaten da, eta aurten ere horrela izango da. Epaimahaia, izen handiko jendeak osatu ohi du: Andoni Agirre-

omezhorta (Vaya Semanita), Joxe Mari Agirretxe (Porrotx), Iñaki Agirrezabal (Gorringo), Mainer Bartolome (Zazpiarte), Maite Franco, Joxe Mari Karrera,...

Baina bigarren epaimahaia ere izango da, ikusleez osatua hain zuten ere. Bertaratzen diren ikusle guztiek, beraien gustukoena izan den antzezlanaren aldeko bozka emateko aukera izango dute. Eta epaimahaia bezala, bi sari izango dira banatzeko. Alde batetik 1.000 euroko Asvinenea saria, antzerki lan onenarentzat, eta 500 euroko saria, publikoak aukeratzeko duen lanarentzat.



Edurne Agirrezabala izan zen izako lehiaketako irabazlea. HITZA



izako laugarren lehiaketan parte hartu zuten partaideak, Asvineneako kideekin batera. HITZA

Hiru ideia eta helburu zehatza

Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatzearen beharren inguruan ere hitz egin zuen Letizia Aristi Asvineneako kideak. Lehen lehiaketa hura, duela bost urte, arrazoi ezberdinengatik, euren lanak erakutsi, eta non egin ez zuten artistei lekua edo estaldura eman nahian sortu zuten.

Antzerki tailerren ikasleak, ideia originalen sortzaileak, antzezlan bat prestatzen ari diren profesionalak, antzerkigintzagatik grina sentitzen duten elkarte edo kolektiboak, ... guzti hauei lekua ematea izan dute helburu.

Hiru ideia izan zituzten oinarrian: formatu txikiko ikuskizunak sustapen eta zabaltzea, teknika eszenikoaren ikerketa, balore berrien formakuntza, ... eta kultur trukeko espazioen sortzea, kudeaketa eta bestelako elkarteekin harremanak sortzea. Jaialdi honen bidez, Gipuzkoako ikuspegi kulturallean hutsune garrantzitsu bati erantzuna eman diote.

Lehen urte hartatik, bosgarren lehiaketara iritsi dira. Eta urtetik urtera, parte hartzea handiagoa da. Eta, ez bakarrik lehiaketan parte hartzen dutenen aldetik, baita gerturatu den ikusle kopuruagatik ere.

Antolatzaileak gustura agertu dira, Poltsikoko Antzerki Lehiaketak, bai prentsan eta baita jendaratean ere, urtez urte izaten ari den oihartzunarekin. Eta azpimarratu zuten, aurtengoan, izan den eskaera handiagatik artista ugari lehiaketatik kanpo geratu direla.

Gipuzkoan horrelako beste aukerarik ez dagoela eta, ikusle moduan animatzeko deia luzatu zuten Letizia Aristi eta Joseba Roldanek. Esperientzia berezia dela eta, merezi duela bertako giroa ezagutzeko.

↓ 5. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa

BIHAR

■ **22:30ean.** Permin Mañifikue, Edurne Agirrezabala, Viento en Pompa, Berastegiko Antzerki Taldea, Banarte eta Aldraka Antzerki Taldeak izango dira taula gainera igoko direnak.

MAIATZAK 6, OSTIRALA

■ **22:30ean.** Weisford eta Xakelton, Aldatzen laguntzen, Retama, Hernanikoa, Hortzaka, Café en el Pepe eta Ipfosfacto taldeak igoko dira taula gainera bigarren kanporaketako saioan.

MAIATZAK 13, OSTIRALA

■ **22:30ean.** Pequeño Payaso dictador, Annarita, Rosse Mary's baby, Tic-Tac, Alegría Hermanos, Séctate eta Inozentzio taldeen lanak ikusteko aukera izango da hirugarren kanporaketan.

MAIATZAK 20, OSTIRALA

■ **22:30ean.** Kukubazar, Siempre arriba, Pollo rosa, Karmakros, Amets, Zirkoloretsua eta Portugaleteko Antzerki Eskola ariko dira taula gainean, azken kanporaketan.

FINALURREKOAK

■ **Bi.** Maiatzaren 27an eta ekainaren 3an izango dira bi finalurrekoak.

FINALA

■ **Ekainak 10.** Saillkatzen diren taldeekin jokatu da.

GONBIDATUAK

■ **Saio guztietan.** Egingo den saio guztietan, gonbidatu berezi bat izango da taula gainean. Lehen, bihar, Falilou Diagne artista senegaldarra izango da.

SARRERAK

■ **Egunean bertan.** Ikusi nahi duenak, sarrera egunean bertan eskuratu beharko du.

ZENBAIT DATU

■ **27 antzezlan.** Gehienak gipuzkoarrak diren arren, badira Nafarroa eta Bizkaitik aurkeztuak ere.
 ■ **9 euskaraz.** Urtetik urtera, euskarazko presentzia handiagoa du lehiaketan.
 ■ **Epaimahaia.** Asvinenea Elkarteaz kanpoko jendeak osatuta da, tartean izen handikoak.

Santa Krutzeekin lehenengo festen usaina nabaritzen hasi da

Orexan bihar hasi eta asteartean amaituko dira jaiak; Asteasuko Elizmendi auzoan etzi eta igandean izango dira

Maier Ugartemendia

Udaberriarekin batera iritsi dira urteko lehen festak. Eskualdean Santa Krutzeekin emango diete hasiera herriko jaiak. Orexakoak bihar hasi, eta asteartean amaituko dira, igandean eta astelehenean atseden hartuko duten arren. Asteasuko Elizmendi auzoan, berri, larunbatean eta igandean ospatuko dituzte Santa Krutzak.

Orexan oilarrenen jaitsierarekin emango diete hasiera jaiak. Elizmendin, aldiz, Simon elizaren goialdetik jaisten denean hasiko dira festak. Amaiera ere, oilarren eta Simonen igoerarekin emango diete.

Festa hauetan adin guztietako pertsonentzat antolatuta dituzte ekitaldiak. Orexan aipatzekoak dira haur eta gaztetxoek zuzendurik dagoen Txan Magoaren ikuskizuna, Imuntzo eta Belokik herri afariaren ostean eskainiko duten emanaldia edota bertso saioa. Gainera, festa hauek parte hartzaileak direla ere ikus daiteke. Esate baterako, auzoen arteko apustu bat antolatuta dute, eta herriko neska-mutilak elkarren

aurka ariko dira token eta sokasaltoan.

Elizmendin haurren zezen txiki eta poneyekin jolasteko aukera izango dute. Eta, herri afariaren ostean herritar guztiek Kupela taldearekin dantzatzeko aukera izango dute. Bide batez, bihar izango da herri afarirako txartelak erosteko azken eguna. Ogi Zuri okindegian edo Lizarra etxean eskura daitezke. 25 euroan helduek, eta 15 euroan haurrek.



Simonen jaitsierarekin emango diete hasiera jaiak Elizmendin; Orexan oilarrenenarekin hasiko dira. IMANOL GARCIA

↓ Egitarauak

OREXAKO JAIAK

APIRILAK 29, BIHAR

- **19:30.** Oilarrenen jaitsierarekin hasiera emango diete jaiak.
- **Jarraian.** Buruhandiak, txistulariak eta batukada izango dira.
- **20:30.** Afari merienda egingo dute.
- **Ondoren.** Txan Magoak magia ikuskizuna eskainiko du.
- **24:00.** Dj Bull.

APIRILAK 30, ETZI

- **16:30.** Ume jolasak egingo dituzte.
- **Ondoren.** Merienda.
- **21:00.** Herri afaria.
- **Ondoren.** Imuntzo eta Beloki, eta Dj Bull.
- **Goizaldean.** Baratzuri zopa hartuta, gorputza berotzen saiatuko dira.

MAIATZAK 1, IGANDEA

- **18:00.** Aizkolariak: Jesus Mari Mujika eta Iñaki Azurmendi.
- **Ondoren.** Sagardo dastatzea egingo dute, Lizartzako ISK & BILLA txarangak alaiturik.
- **20:00.** Bertso saioa Unai Iturriaga, Uxue Alberdi, Unai Agirre eta Jesus Mari Irazu bertsolariekin.

MAIATZAK 3, ASTEARTEA, Santa Krutz eguna

- **11:00.** Diana.
- **13:00.** Auzoen arteko apustua egingo dute.
- **14:00.** Pintxo onenak aukeratu dituzte pintxo lehiaketan.
- **17:00.** Neskak mutilen aurka ariko dira token eta sokasaltoan.
- **19:00.** Festei amaiera eman go diete oilarrenen igoerarekin.

ASTEASUKO, ELIZMENDIKO JAIAK

APIRILAK 30, ETZI

- **16:00.** Mus txapelketa herrikoa.
- **16:30.** Txupinazoarekin eta Simonen jaitsierarekin jaiak hasiera emango diete.
- **Ondoren.** Duatloia. Parte hartzaileek egin beharreko probak: mendiko txirindularitza eta krosa.
- **Ondoren.** Haurrentzako jolasak izango dira.
- **19:00.** Haurrek zezen txiki eta poneyekin jolastu ahal izango dute.
- **20:30.** Herri afaria, Erretore etxean.
- **23:00.** Erromeria Kupela taldearekin.
- **Goizaldean.** Txokolatada.

MAIATZAK 1, IGANDEA


- **11:30.** Meza entzun ahal izango da Santa Krutz ermitan.
- **Ondoren.** Hamaiketako egingo dute. Aldi berean, toka txapelketa egingo dute. Guzti hau Laja eta Landakanda trikitilariak musikarekin alaituko dute.
- **17:30.** Herri kirolen erakustaldia ikusi ahal izango da. Batetik, Aratz Mugerza eta Jokin Alkizalete aizkolariak ariko dira. Bestetik, harri jasotzen ariko da Odei Iruretagoiena (Izeta IV) harrijasotzailea.
- **Ondoren.** Laja eta Landakanda.
- **21:00.** Simonen igoera.
- **Ondoren.** Lajaren eta Landakandaren erromeriarekin amaiera emango diete Santa Krutz jaiak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena


ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neunik
hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez,
aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak
eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

Olatz Dorronsoro Eizmendi (Tolosa). Gaur 11 urte, zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Irudia HITZA Argazki Lehiaketa



ANIMALIAK ETA NATURA BERTATIK BERTARA

Pixkanaka-pixkanaka bada ere harpidedunak ari dira animatzen XIII. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzera. Berastegiko Izaskun Karrerak ere bere irudia bidali du: Kantabriako Cabarceno parkean ateratakoa. Karrerak eta parte-hartzaile guztiek hiru sarjaso ditza-

kete; lehenengoak Photokafe-k eskainitako Sony DSC-HX1 argazki kamera irabaziko du, bigarrenengoak Markina-Xemeingo Satzu landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia, eta hirugarrenak Amaroz jatetxean bi pertsonentzako otordua. I.K.

Agenda

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

DEIALDIK

- **Ibarra.** *Paperezko zirkoa* magia saioa Eriz Magoaren eskutik gaur, 17:00etan kultur etxean.
- **Tolosa.** Txapin Festa antolatzeko bilera gaur, 19:00etan kultur etxean.
- **Ibarra.** Bildu alderdiaren aurkezpena gaur, 17:00etan plazaan.
- **Aduna.** Asvineneak antolatzeko duen V. Poltsiko Lehiaketa-

ko lehen gala bihar izango da 22:30etik aurrera Asvinenean bertan. Sei taldek parte hartuko dute: Permin Mañifikue, Edurne Agirrezabala, Viento en Pompa, Berastegiko Antzerki Taldea, Banarte eta Aldraka Antzerki Taldea. Epaimahaiak zein ikusleek hautaturiko bi talde pasako dira hurrengo fasera, hau ekainak 10 bitarte ostiralero izango da.

■ **Tolosa.** San Joan eguneko

Bordon dantzarien entseguko maiatzaren Sean hasiko direla jakinarazi dute Udaberri dantza taldeko kideek. Entsegu guztiak Usabal Kirolegian izango dira.

ZINEMA

- **Tolosa.** *When you're strange* filma gaur, zine-forumean jatorrizko bertsioan 19:15ean eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Naroa Armendarizen *Perla Pinturak* izeneko erakusketa Aranburu jauregian maiatzaren 7a bitarte.
- **Tolosa.** Jose Benito Ruizen *Giza izaera eta izadia* argazki erakusketa Aranburu jauregian Naturaldia jardunaldien barruan, ostiraletik maiatzaren 31 arte.

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

■Izen-abizenak:

■NA:

■Lanbidea:

■Jaioteguna:

■Helbidea:

■Herria:

■P.K.:

■Tel.:

■Posta elektronikoa:

■Kontu zenbakia: